



Haurren Kontrako Sexu Abusuei buruzko irakasleentzako Prest-Gara ikastaroa: EAEko lehenengo ikastaro homologatuaren sorkuntza

2019/2020 ikasturtea

Egilea: Maitane Urizar Elorza
Zuzendaria: Nahia Idoiaga Mondragon
Leioan, 2020ko maiatzaren 29an

Aurkibidea

Laburpenak	2
1. Sarrera.....	3
2. Marko teorikoa	4
2.1. Haurren kontrako sexu abusuen (HkSA) definizioa	4
2.2. Prebalentzia eta intzidentzia	5
2.3. Erasotzaileak eta zaurgarritasuna	6
2.4. Sexu abusu motak	7
2.5. Ondorioak	8
2.6. HkSAren azterketa judiziala	11
2.7. Prebentzioa eta protekzioa	14
3. Haurren Kontrako Abusu Sexualen Sekretua Hausten: online ikastaroa	16
3.1. Helburua	16
3.2. Testuingurua eta Prozedura	16
3.3. HkASei buruzko ikastaroaren sorrera: aurretiko ikerketa eta balidazioa	16
3.3.1. HkASei buruzko jardunaldiak: Ezagutza eta usteen azterketa.....	17
3.3.2. Aurre balidazioa	17
3.4. HkASei buruzko ikastaroaren helburu orokorrak.....	19
3.5. Metodologia.....	19
3.6. Parte-hartzaileak	19
3.7. Ezagutzen aurre-ebaluazioa	20
3.8. Ikastaroaren garapena	20
3.9. Ikastaroaren_deskribapena	21
3.10. Ikastaroaren_balorazioa	25
4. Ondorioak	25
5. Jarraibide etikoak.....	26
6. Erreferentziak	27

Haurren Kontrako Sexu Abusuei buruzko irakasleentzako Prest-Gara ikastaroa: EAEko lehenengo ikastaro homologatuaren sorkuntza

Maitane Urizar Elorza

UPV/EHU

Haurren Kontrako Sexu Abusuak (HKSA) gizartean zabal hedatutako problematika izan arren, apenas ez dago gai honi buruzko irakasleentzako prestakuntza publiko eta homologaturik. Hori horrela, proiektu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan jardunean dauden irakasleentzako HKSAei buruzko lehenengo prestakuntza publiko eta akreditatua diseinatzea eta burutzea izan zen, irakasleen etengabeko prestakuntzarako Prest-Gara planaren barnean. Prestakuntza hau irakasleen jardun hezitzaileerako ezinbestekoa dela ondorioztatzen da; izan ere, parte hartu zuten irakasle gehienek adierazi zuten HKSA kasuei aurre egin behar izan zietela beren ibilbide profesionalean. Halaber, irakasleen zati handi bat prestatzeak laguntza- eta euste-sare bat sortzea sustatuko lukeela ere defendatzen da.

Haurren Kontrako Sexu Abusuak (HKSA), Etengabeko formakuntza, irakasleria, prebentzioa, biktimak

A pesar de que el Abuso Sexual Infantil (ASI) es una problemática ampliamente extendida en la sociedad, apenas existe formación pública y homologada para el profesorado en esta materia. En este sentido, el objetivo de este proyecto fue diseñar y llevar a cabo la primera formación pública y acreditada sobre el ASI para el profesorado en activo en la Comunidad Autónoma del País Vasco, dentro del plan Prest-Gara de formación continua del profesorado. Se concluye que esta formación es imprescindible para la práctica educativa del profesorado, ya que la mayoría de los profesores participantes manifestaron haberse enfrentado a casos de ASI en su trayectoria profesional. También se defiende que la formación de gran parte del profesorado fomentaría la creación de una red de apoyo y contención.

Abuso Sexual Infantil, Formación continua, Prevención, Profesorado, Víctimas.

Despite the fact that Child Sexual Abuse (CSA) is a widespread problem in society, there is hardly any public and accredited training for teachers in this area. In this sense, the objective of this project was to design and carry out the first public and accredited training on CSA for active teachers in the Basque Country, within the Prest-Garap plan for continuous teacher training. The conclusion is that this training is essential for the educational practice of the teaching staff, since most of the participating teachers stated that they had faced cases of CSA in their professional career. It is also argued that the training of a large part of the teaching staff would encourage the creation of a support and containment network.

Child Sexual Abuse, Continuing Education, Prevention, Teachers, Victims.

1. Sarrera

Lau neskatotatik batek eta zazpi mutikotatik batek sexu-indarkeria pairatu du, pairatzen ari da edo pairatuko du 18 urte bete baino lehen (Save the Children, 2017). Datu hauek latzak eta gordinak izan arren egungo errealitate isildu baten isla dira eta etorkizuneko hezkuntza profesional gisa gure jardun hezitzailean oso presente izan beharko genukeen problematika bat jorratzen dute Haurren Kontrako Sexu Abusuena (HKSA) hain zuzen ere.

Problematika honi aurre egiteko lehenik eta behin funtsezkoa da irakasleok, hurrekin egunerokotasunean lan egiten dugun profesional gisa, gaiari buruzko prestakuntza kualifikatua izatea, horrela sexu-abusuak prebenitzeko, detektatzeko eta horien ondorioak murriztuz jarduteko konpetentziak eskuratzeko. Halaber, prestakuntza hori ezinbestekoa izango da biktimei laguntzeko eta estigmatik haratago hezkuntza-sisteman beraien inklusioa bermatzeko.

Gradu amaierako lan honen lehenengo asmoa, lehen hezkuntzako irakasleentzako beraien beharrianetan eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako HKSAei buruzko online formakuntza bat sortzea izan zen. Baina Eusko Jaurlaritzak irakasleen etengabeko formakuntza bermatzeko sortua duen Prest-Gara planari esker, ikastaro hori homologatzeko aukera izan genuen eta lehiaketa publiko horretan parte hartu eta esleipena lortuaz azken emaitza gisa EAE-ko HKSA-*ei* buruzko irakasleentzako lehenengo ikastaro doako eta homologatua eskaintzea lortu da.

Ikastaro hau 2018ko azaro eta ekaina artean burutu zen eta 25 online ordu eta 5 ordu presentzial izan zituen. Gainera, esan bezala, ikastaroa profesionalen beharrianetatik abiatu zen baina ebidentzia bibliografiko oparoan du bere sustengua. Gainera ebidentzia horretan oinarrituz beren beregi sortutako materialez osatua dago, bai testuak eta baita material audiobisualak ere. Material guzti hau ikastaroa ahalbidetzeko sortutako Wix plataforman aurkituko duzue eta gainera lan honetan zehar ere puntuz puntu azalduko da.

Prest-Gara planaren barnean egindako ikastaroa bera aurkeztea eta ebaluatzea izango du beraz lan honek xede gisa. Halaber, bertan batzen ditugun emaitza positiboetan oinarrituta HKSAak jorratzearen garrantziari buruz ere hausnartuko dugu. Izan ere, problematika plazaratzea eta biktimekiko babes sarea sortzea baitira gaitz honen kontra irakasle gisa ekiteko gure lanabesak.

2. Marko teorikoa

2.1. Haurren kontrako sexu abusuen (HKSA) definizioa

Haurren kontrako sexu abusuen (HKSA) haurren kontrako tratu txar azpi-mota bat dira. Tratu txarren definizio osatuenetako bat *Centre International de l'Enfance de Parisek* proposatutakoa da:

Cualquier acto por acción, omisión o trato negligente, no accidental, realizado por individuos, por instituciones o por la sociedad en su conjunto, y todos los estados derivados de estos actos o de su ausencia que priven a los niños de su libertad o de sus derechos correspondientes y/o que dificulten su óptimo desarrollo (Pereda, 2010a).

Definizio honek barne hartzen du haurrari egiten zaiona (akzioa), egiten ez zaiona (ez-egite edo omisoa) edo utzikeriaren eraginez jasan beharrekoa (arduragabekeria), askatasun eta eskubideen pribazioa tratu txar gisa hartuz eta gizarte eta instituzioak ere erasotzaile/erantzule gisa onartzuz (Pereda, 2010a).

Ikerketa prozesua aurrera joan ahala terminologia bera moldatu egin da, kontzeptuak berak bizi izan duen prozesua jarraituz (Interagency Working Group on Sexual Exploitation of Children, 2016). Hots, haurtzaroko sexu abusuen bako (gaztelaniaz abuso sexual infantil, ASI), haurren kontrako sexu abusuen (HkSA) terminoa erabiliko da.

Definizioari dagokionez, nahiz eta gaur egun ikertzaileen artean eztabaida dagoen, ikerketa honetan *National Center of Child Abuse and Neglect* instituzioak ezarritakoa erabiliko da. Izan ere definizio horrek hainbat adituk (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) garrantzitsutzat dituzten aldagai desberdinak barne hartzen ditu: biktima eta erasotzailearen arteko berdintasun eza (adin, heldutasun edo botere asimetriagaitik) eta haurrak objektu sexual gisa erabiltzea.

Heldu (berezkoa duen botere rola duenak) eta haurren arteko edozelako kontaktu edo elkarrekintza sexuala, zeinetan helduak haurra erabiliko duen beraren, haurraren edo beste baten estimulazio sexualerako. Sexu abusua adin txikiko batengatik ere eman daiteke, erasotzailea haurrarenegatik adinez nagusiagoa denean edo botere harreman bat dagoenean (Intebi, 2007, 11.or).

Kontutan hartu beharra dago jasotako definizioak ez duela irakurketa penalarekin bat egiten, zeinetan abusu/eraso tipologiak markatzen diren. Bertan abusua biolentzia gabeko gertaera gisa planteatzen da eta erasoan abusu hori burutzeko biolentziaren erabilera ezinbesteko aldagai bihurtzen da. Gogoratu beharra dago solik aztertutako kasuen % 10ean abusuak biolentzia fisikorekin egiten direla (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) edota zantzu fisikoak oso gutxitan topatu ohi direla (Auzitegi Gorena, 2016; Pereda, 2010c).

HKSA sedukzio eta manipulazio prozesu baten bitartez eman ohi da (Lameiras, Carrera eta Garrido, 2008), abusatzailearen nahitako domestikazio prozesu baten bitartez, abusuak gutxinaka eta progresiboki emanez, ukitze eta masturbazioaren bitartez hasiz eta kasu gutxi batzuetan koittoa emanez (baginala % 4,9 eta anala % 2,7) (Marco, 2018; Save the Children, 2017). HKSA gertaera gehienak genitalean laztanak izan ohi dira (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) eta hauek lasai asko mozorrotu daitezke senide batengatik jasotako bainu edo higiene intimoaren zainketan (Marcon, 2018).

Solía intentar abusar de un niño sólo cuando le conocía a él y a su familia. En cuanto tenía acceso a ese círculo, intentaba entender al niño lo más posible, ver cómo se relacionaba con los adultos y otros parientes y, si entrevería alguna posibilidad realista de éxito, entonces empezaba a preparar mi objetivo. (Hammel-Zabin, 2005, 108.or.)

2.2. Prebalentzia eta intzidentzia

Haurren kontrako tratu txarrak kultura, gizarte eta estrato sozial guztietan eman den gertaera iraunkorra izan da historian (Pereda, 2007; Intebi, 2011). Mundu mailan burututako ikerketa hertsiki eta metanalitikoek adierazten dutenez, HKSA hedadura handiko problematika da (Pereda, 2016). Espainiako ikerketa kopurua asko handitu bada ere, gaur egun haurrek pairatzen duten biolentziari buruzko 10 ikerketetatik 7 berdinen arteko biolentziari buruz dira (Pereda, Guilera eta Abad, 2014), nahiz eta haurrek pairatzen duten biktimizazioa hein handi batean helduengandik datorren.

Espainiako HKSAen intzidentzia ikerketei dagokionez, Autonomi Erkidego desberdinetako gizarte zerbitzuetako datuen bitartez egin dira (Pereda, Gómez-Martín, Greco, Hombrado eta Segura, 2018). Datuok, eskasak eta oso mugatuak dira, izan ere gizarte zerbitzuek sektore zaugarrienekin soilik dute kontaktua eta kasu grabeenak izan ohi dira horiek. Gainera HKSAk gehiengo handi baten ez da ez salatzen ezta notifikatzen ere, notifikazio tasa % 1 baino txikiagoa delarik (Lameiras, et al, 2008). Are gehiago, jakin badakigu biktimek abusu sexualak kontatu izan dituzten kasuen %70ean ez dela ezer ez edo ezer gutxi egin (Save the Children, 2017). Hortaz intzidentzia datuak ezin daitezke inoiz gizarteko HKSA maila neurtzeko erabili, testuinguru konkretu batetan profesionalak duten detekzio maila neurtzeko baizik (Pereda et al, 2018). Hala ere, aipatu beharra dago Espainia mailako azken intzidentzia ikerketa, orain dela 10 urte baino beranduagokoa dela (Pereda, 2016)

Beraz, aipatutako arrazoiengaitik, prebalentzia ikerketek jasotako datuetan erdiratuko gara lan honetan. Aldakortasun gutxiko ehunekoak adierazten dituzten ikerketa

desberdinek, Espainian neskatoen % 20k eta mutikoen % 8k HKSA pairatzen dutela azaltzen dute, orokorrean 13 urte bete baino lehenago izan ohi delarik (Pereda, 2016).

Espainiako prebalentzia % 8,8 kokatzen da, baina helduei galdetu zaienean % 14,6 eta %17,9 arteko tasak aurkitu ziren (Pereda et al, 2018). Peredak biktimak pairatzen duen disoziazioan azaltzen du datuen aldea, mekanismo psikologiko honek gertaeraren oroitzapena urte luzez erreprimitzea ekar dezakeelako, gertatu izana ere zalantzan jarritz. Peredak burututako ikerketan eta zonalde geografiko berdineko unibertsitateko ikasleekin egindako ikerketaren datuekin bat eginez, orokorrean pubertaro aurretik hasten dira abusuak, gertaera kronikoak dira eta kontaktuarekin emandako abusuak dira (Benavente, 2016, Pereda et al-en, 2018). Marcok, autore desberdinak aipatuz ere, 6-13 urte tartea kokatzen du zaurgarritasun gehien duen etapa gisa (Marco, 2018).

Era berean, aipatu beharra dago zenbait kolektiboetan ehunekoak gora egiten dutela, nahiz eta datu hauek ezin diren extrapolatu: gazte justiziako zentro itxietako gazteak (% 77,2), ingurune irekiko ekipoko neskatoak (% 42,1) eta egoitza- eta harrera-zentroetako neskatoak (% 44,6) (Pereda, 2016). Halaber, azpimarratzekoa da atzerapen mentaleko haurrek sexu abusuak maiztasun askosaz handiagoarekin pairatzen dituztela, bereziki 6-11 urte tartean, nerabezaroan arriskua asko handituz eta helduaroan ere jarraituz (Verdugo et al, 2002). Ikerketaren arabera, desgaitasuna duten bi neskatoetatik batek eta hiru mutikoetatik batek sexu abusuak pairatu ditu

2.3. Erasotzaileak eta zaurgarritasuna

Abusatzaileek haur pasiboago, autoestimu gutxiagoko eta bakarrik sentitzen direnengana hurbiltzea lehenetsi ohi dute. Azken batean manipulagarriagoak, erresistentzia jartzeko gaitasun gutxiagokoak, edota kontatzeko edo sinistruak izateko aukera gutxiago dutenak direlako (Save the Children, 2017). Afektu gabeko haurrak zaurgarriagoak dira atentzio eta ordainsarien truke sexua onartu eta sekretua gordetzeko, izan ere nahiko ohikoa da 3 urtetatik aurrerako biktimetan irabazi edo ordainsariak jasotzea (Save the Children, 2017).

Abusatzailei dagokienez, gehiengoa gizonak dira eta % 50-85 biktimaren familiakidea edota ahaidea (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015; Save the Children, 2017). Abusatzaileek itxura normala izan ohi dute, adimen ertainekoak dira eta ez dute zergaitik arazo psikotikorik izan behar (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Are gehiago, horietako asko ez dira haurrengandik sexualki erakarriak sentitzen eta ehuneko

handi batean ezkontuta daude (% 65-85) (Save the Children, 2017). Izatez, abusu kasuen % 83,82 itxuraz harreman harmoniatsuak zituzten familietan gertatu ziren.

Deigarria da baita ere, biktimaren antzeko adina duten erasotzaile kopurua (Pereda et al., 2018). Izan ere abusatzaileen % 11,9 20 urte baino gutxiagoko gazteak dira (Save the Children, 2017) eta sexu abusatzaileen % 50ek beraien lehenengo eraso 16 urte baino gutxiago zituztela egin zuen (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Pilar Polok (2020), garai berrietako eskema familiarrei egokituz, bizikidetzaren unitatean egindako abusetaz hitz egiten du, ez intzestuaz. Izan ere, nahiz eta odol loturarik ez izan, bizikidetzaren eta binkulu afektibo sendoak dauden figurak daude gaur egungo familietan. Familia barruko abusan, abusatzaile nagusia aita figura betetzen duen gizona izan ohi da, kasu hauek detektatzeko zailak dira eta ondorio kliniko larrienak sortu ohi dituzte (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Polok tipologia desberdinetako aita abusatzaile desberdinak planteatzen ditu: gizon gixajoarena, amak autoritate gogor bat ezartzen duena; aita-guay, limiteak markatzen ez dituen eta seme/alabekin arauak urratzen dituen, eta aita kontrolatzailea, zein normalean biolentzia dagoen familietan ikus daiteke. Poloren aburuz, sintesian aditasuna jarri behar da hurrengo ezaugarriak dituzten guraso-seme/alaba harremanetan: limiteak lausoak dauden familiak, edozein arrazoiengatik amak babestu ezin dezakeen familiak (gaixotasunagatik, adikzioengatik, etab.) eta batez ere ardura harreman asimetrikoa baino, laguntasun-harreman guztiz simetrikoa duten aita dauden familiak (Polo, 2020).

2.4. Sexu abusu motak

Sexu abusuak kontaktuarekin (ukitzeak, masturbazioa, felazioak, penetrazioa, etab.) edo kontaktu gabe (proposamen sexualak, exhibizionismoa, pornografia ikusarazi, etab.) eman daitezke. Kontakturik gabeko sexu abusuak orain arte ikusi ez den dimentsio bat hartzen ari dira, gaur egungo gizartean IKTeak duten presentzia dela eta. Pulido eta Flechak (2009), Rimm (1995) aipatuz adierazten dute pornografia deskargen % 50 HKSak direla eta Interpolek 2011ean egindako txostenak adierazten duenez, sarean burututako delituen % 50, HKSak dituzten ikus-entzunezko materialen distribuzio, difusio eta salmenta dira (Jiménez, 2012)

Espanian 10-15 urte tarteko gazteen artean % 92k internet erabiltzen dute eta Tuenti, Twitter eta Facebook bezalako sare sozialen erabiltzaile nagusiak dira (Ine, 2014, Pinto, Cantón eta Santos, 2019). Egoera honek abiapuntu desberdinak eskaintzen dizkigu.

Alde batetik online bidezko pornografiara heltzeko aukera, izan ere “natibo digitalak” diren horien artean, pornografiarako sarbidearen adin tartea 9 urtera jaitsi da eta 10-12 urterekin mutikoen % 25k pornografia kontsumitzen du (Ballester eta Gil, 2006). Beste alde batetik, online bidezko jazarpen sexual edo grooming dagokionez, aztertutako lehen hekuntzako gazteen % 15,5ek, DBHko % 47,5ek eta batxilergoko % 64k online bidezko jazarpen sexuala pairatu du (Montiel, 2014). Peredak egindako ikerketetan ere (Montielen, 2014) neskatuen % 19,5ek online bidezko jazarpen sexuala pairatu duela ikus daitekularik.

Erasotzaileak ezezagunak izan badaitezke ere, Montiel, Carbonell eta Salomek (2014) azaltzen duten bezala, kasuen % 80an erasotzailea senide edo haurrentzako ezagunak ziren pertsonak ziren, orokorrean gizonak eta edozein kultura, jatorri eta adinekoak, nahiz eta adierazgarria den 2009ko ikerketa batetan % 50, 25 urte baino gazteagoak zirela.

2.5. Ondorioak

HKSA bizipenak biktimaren garapen aldi guztietan eragina izango du (Pereda, 2010b, 2010c), ongizate psikologiko eta fisikoan eragin garrantzitsuak izanez. Halaber, Peredak epe laburreko eta epe luzeko ondorio psikologiko eta fisikoak eta ondorio neurobiologiko eta neurofisiologikoak biltzen dituen errebisio ikerketak egin ditu (2009; 2010b; 2010c, 2011). Ondorio psikologikoei dagokionez ohikoak eta askotarikoak dira, bai haurtzaroan edo abusua eman eta gutxira ematen direnak, bai maiz ematen den bezala, helduarorarte iraun edota bizitza osoan zehar emango direnak (Kanter eta Pereda, 2020). Gainera, nerbio-plastikotasun altua dagoen etapa batetan (haurtzaroan) hainbesteko estresa suposatzen duen esperientzia bat bizitzeak, ondorio fisiko larriak ekar ditzazke (Pereda, 2010c) eta ondorioz gaur egun ikerketa lerro berri bat zabaltzen ari da HKSAek izan ditzaketan ondorio neurobiologiko eta neurofisiologikoen inguruan (Pereda, 2011)

HKSAen inguruko ikerketek bizitzaren eremu guztietan eragina duten ondorioak baieztatzen badituzte ere, ezinezkoa suertatzen da sindrome bat definitzea. Funtsean patroi desberdinak bat ez egoteak, pairatzen diren sintoma ugari eta desberdinak edota sintomen presentzia ezak, sexu abusu esperientziak dakartzan arazo emozional, kognitibo eta sozialak globalki jasotzea zaila egiten baitu (Pereda, 2009). Biktima asintomatikoei dagokionez (% 20-30), gerta daiteke efektu latenteak deritzonak izatea

(Pereda, 2009) eta ondorioak urteak pasa ostean agertzea, hauek bizitzako eremu guztietan eragin dezaketelarik (Kanter eta Pereda, 2020).

Ondorioak bi eremutan sailkatzen dira, *epe laburreko* (abusua gertatu eta bi urte arte ematen direnak) eta *epe luzeko* ondorioak (bi urte pasa ostean ematen direnak). Epe luzeko ondorioak zehaztea zailagoa suertatzen da, izan ere ezin daiteke ziurtatu beste biktimizazio batzuegatik izan ez direla (Pereda, 2009).

Epe laburreko ondorio psikologikoak beraz gehien bat haurtzaro eta nerabezaroan topa daitezke. Pereda (2009) egindako errebisioan biktimen % 62,8-69 sintomatologia psikopatologikoa zuen. Izan ere, arazo emozionalei dagokionez hurrengoak jaso dira: biktimen ia erdiak trauma osteko sintomatologia, antsietatea eta depresio sintomak zituen (mutilen % 4-44 eta nesken % 9-41), autoestimu baxua, kulpa eta estigmatizazio sentimendua zituzten (% 4-41) eta baita ideazio edota jokabide suizidak ere (emakumeen % 26,5-54 eta gizonen % 37,4-50). Errendimendu akademiko eta arazo kognitiboei dagokionez, atentzio eta kontzentrazio gaitasuna nabarmentzen da % 4-40k sintomatologia hiperaktiboa aurkezten duelarik. Harreman arazoak (bai familiakideekiko bai ezezagunekiko) ohikoenak dira, biktimen % 44k lagun gutxi dituelarik, biktimak ez diren % 11ekin alderatuz. Arazo funtzionalei dagokionez loarekin arazoak (% 56), esfinterraren kontrola galtzea (% 18) eta elikadura arazoak (% 49) dira ohikoenak. Eta azkenik, jokabide arazoei dagokionez jarrera sexualizatuak, konformitate konpulsiboa eta jokabide disruptibo eta disoziala (emakumeen % 25,3 eta gizonen % 58,4) agertu ohi dira. Zehazki, jarrera sexualizatua 15 aldiz probableagoa da biktimetan, haur txikietan ere agertzen delarik, beraz sexu abusuaren adierazle oso fidagarria da (Pereda, 2009).

Eskolaurreko garaian sintoma internalizanteak ikusiko dira gehien bat, bereziki enuresia, antsietatea (trauma osteko sintomatología gailentzen da) eta kexa somatikoak, arazo externalizanteak hurrengo etapetan gehiago emango direlarik (jarrera disruptiboak eta delinkuentzia).

Epe luzeko ondorioak biktimen % 20k pairatzen dituztela baieztatu da (Pereda, 2010b). HKSA helduaroan nahasmendu psikopatologiko desberdinak pairatzeko arrisku faktorea da, hala ere etapa honetan ere ezingo da sindrome konkretu edo sintoma multzo konkretu batetaz hitz egin. Dena dela, orokorrean osasun mental okerragoa baieztatzen da, sintoma eta nahasmendu psikiatriko gehiagorekin. Gainera, beste tratu txarrek ez bezala, HKSAk ez du pertsonalitate nahasmendu konkretu batekin korrelazionatzen, bai

aldiz moduren baten guztiekin (Pereda, 2010b), gaur egun berau definitzeko trauma konplexu kontzeptua lantzen ari delarik (López-Soler, 2008).

Epe luzeko ondorioen artean ere arazo emozionalak nabarmen ditzakegu, oso maiz nahasmendu depresibo eta bipolarrak, antsietate sintoma eta nahasmenduak, bereziki traumako osteko estresa nahasmendua, mugako nortasunaren nahasmendua, jokabide autolesiboak nerabegarotik (ebaketak eta erredurak besaurre eta eskumuterretan), suizidio ideia edo saiakerekin batera edo gabe, eta autoestimu baxua agertuaz (Pereda, 2010b).

Harreman arazoei dagokionez, pertsona arteko harremanak kaltetuenetarikoak dira bai hasiera batean bai epe luzera ere. Isolamendu maila eta antsietate sozial altuagoa, lagun kopuru gutxiago eta gizarte harreman gutxiago izan ohi dute biktimek, jarduera komunitarioetan gutxi parte hartuz. Bikote harremanekin eta seme-alaben heziketarekin arazoak eta amatasun rolaren balio galera orokorra ere agertu izan da (Pereda, 2010b). Jokabide eta gizarte egokitzapen arazoei dagokionez etsakeria maila altuagoa ikusten da, baita jokabide anti-sozial eta nahasmenak ere (etxetik ihesaldiak, delinkuentzia eta atxilotua izateko aukera) (Pereda, 2010b).

Arazo funtzionalei dagokionez, oso kasuistika zabala ageri ohi da: azalpen mediku gabeko min fisikoak, buruko minak, fibromialgia eta nahasmendu gastrointestinalak. Emakumeetan nahasmen kardiobaskularrak izateko arriskua handitzen da. Elikadura-portaeraren nahasmendua (obesitatea, bulimia edo anorexia nerbiosoa), bereziki bulimia nerbiosoa. Konbertsio nahasmendua, funtzio motor edo sentSORIALA kaltetuz; konbultsiozko atake ez epileptikoak eta somatizazio nahasmenduak. Maiztasun handiz sintoma eta nahasmendu disoziatiboak (kontzientzia, identitate, memoria eta ingurugiroaren pertzepzio funtzio integratzaileen alterazioa). Nahasmendu ginekologikoei dagokionez, bereziki min pelbiko kronikoak, hilekoaren zikloan alterazioak eta menopausiaren agerraldi goiztiarra. Substantzien mendekotasun eta kontsumo altuekin harremana duten nahasmenduak (alkohola, tabakoa eta marihuana), beste tratu txar motekin ere konparatuz, nahasmendu honen hasiera goiztiarragoa, berrizkatura arrisku gehiago eta tratamenduan pronostiko txarragoa. Osasun fisiko orokor txarragoa (sintoma fisiko errealak eta biktimen osasun pertzepzioan oinarritua), neke kroniko idiopatikoa eta medikura bisita gehiago egitea. Urteetan zehar irauten duten arazo fisiko kronikoak, zahartzarora ere iraun dezaketenak. (Pereda, 2010b; 2010c)

Arazo sexualei dagokionez ez moldaerazko sexualitatea izateko probabilitate handia dute biktimek. Sexualitate disfuntzional eta desatsegina eta arrisku sexualeko jokabideak (protektzio gabeko sexu harremanak, bikote harreman asko, STG presentzia gehiago eta hiesa arriskua) ere ohiko izanik. Gainera, jokabide sexual promiskuoak eta sexualitatearen hasiera goiztiarra, prostituzioa, haurdunaldi eta abortuak adin goiztiarretan, haurdunaldiarekiko sentimendu negatiboak izateko joera dute, amatasun goiztiarra eta erditze osteko depresioarekin batera (Pereda, 2010b; 2010c).

Ber-biktimizazioa edo polibiktimizazioa, hau da, HKSA osteko biolentzia fisiko eta sexuala pairatzeko arriskua % 16-72 artekoa da (Kanter eta Peredan, 2020). Babesgabetasun ikasiaren teoria aztertzen ari da fenomeno honi erantzun bat topatzeari begira (Filipas eta Ullman, 2006, Marconen, 2018), izan ere ohikoena ez da abusatzaile bihurtzea, biktima rola areagotzea baizik arriskuak ez antzemanaz eta abusu eta biolentzia egoeretan jarriz (Save the Children, 2017).

Ondorioen artean batzuk edo beste pairatzea edota hauen intentsitatea aldagai desberdinek baldintzatzen dituzte (Pereda, 2010c). Zehazki, errebelazioaren ostean biktimarentzako esanguratsuak diren pertsonen aldetik sostengua eta erreakzio positibo eta zaintzailea jasotzea, bai haurtzaron eta bai helduaroan egoera psikologiko hobeko batekin harreman du da (Pereda eta Sicilia, 2017). Izan ere, ikusi da amaren babes laguntza iragarle garrantzitsua dela biktimaren errekupeazio eta ongizatean eta baita bere garapen osasuntsuan ere, abusuaren ezaugarriak baino ere (Cyr, et al, 2018). Amaren babesak biktimaren deklarazioan ere eragina izango du, hau osatuagoa eginez eta atzera egite gutxiagorekin (Pereda et al, 2018). Hala ere, kontutan hartu behar da horrelako gertaera batek, haurraren inguru hurbilean ere eragina izango duela (Kanter eta Pereda, 2020). Biktimen amen artean adibidez, angustia psikologiko gehio eta trauma osteko estreseko adierazleak ikusi dira (Cyr et al., 2018).

2.6. HkSaren azterketa judiziala

XX. Mendea “haurren mendea” gisa ulertzen da. 1989. urtean, Ginebrako Haurren Eskubideen Deklarazioa oinarri hartuta, Haurren Eskubideen Konbentzioa sinatu zen (Espainiak barne). Bertan haurrak eskubidedun subjektu gisa onartzen dira eta estatuei eskubide hauen betekizun beharra zedarritzen zaie. 19. artikulua espreski, horrela dio:

Los Estados parte adoptarán todas las medidas legislativas, administrativas, sociales y educativas apropiadas para proteger al niños contra toda forma de violencia, perjuicio o abuso físico y mental, descuido o trato negligente, malos tratos o explotación, incluido el

abuso sexual, mientras el niño se encuentre bajo la custodia de los padres, de un tutor o de cualquier otra persona que lo tenga a su cargo (Intebi, 2011, 62.or).

Hala ere, gaur egungo haurren eskubideetan alde handia dago izan beharko lukeen eta denaren artean. Kontutan hartu beharra dago HKSA kasuak epaitegi arrunt batetan kudeatzen direla, genero biolentziarekin gertatzen ez den bezala, ez dago epaitegi espezifikorik gaian formatutako profesional juridiko, psikologiko eta sozialekin. Egoera larriatzen da biktimak desgaitasuna duenean, largespena (artxibatzea) izateko arriskua handituz (Save the Children, 2017).

Ohikoena, testigu eta zantzu fisiko gabe ematen den delitua izatea da, beraz, biktimaren testigantza egozketa-froga bakarra izango da (Marco, 2018). Normalean errebelazioa helduaroan ematen da (Pereda et al., 2018), berez familia barneko HKSA kasuen % 2 soilik ezagutarazten gertatzen ari den momentuan (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Jakin badakigu soilik nerabe biktimen % 9,3k polizia edota epaitegiak informatzen dituztela (Pereda et al, 2016), datu hauek bat egiten dutelarik aurreko ikerketetan adierazitakoekin (% 90k ez zuen kontatu, López, 1994) eta bai Europa mailan eta bai nazioarteko errebisioek adierazitakoarekin (Pereda et al, 2018).

Gobernuko txostenak iturri, Espainian 3 orduro HKSA kasu bat salatzen da, hala ere EAEn % 90 ez da epaiketa izatera iristen eta heltzen direnak batz besteko 3 urteko iraupena dute, eremu judizialean alde handiarekin kasu gutxien zabalik dituen erkidegoa delarik (Save the Children, 2017). Maiz epaileek ez dituzte frogak onartzen, eta kasuon gehiengo bat instrukzio fasean behin behineko largespen baten bitartez (froga nahikorik ez dagoela) ixten da, teoriarik, froga gehiago lortu arte (Save the Children, 2017):

Asunción crítica del contenido de los informes periciales forenses y falta de valoración de otras pruebas periciales: es significativo que haya informes periciales que consideran que el testimonio no es creíble, y que se desestimen los informes o testimonios de psicólogos encargados del tratamiento del menor de edad, aun estando estos tratamientos enmarcados en programas o proyectos públicos destinados a tratar a niños y niñas víctimas de abusos. Por un lado la Administración no cree a la o al menor, y por otro lado sí. El o la juez da en estos casos un peso mayor al informe llevado a cabo por la o el técnico que tiene menos experiencia con niños y niñas víctimas de abuso (114 or.)

Esan beharra dago prozedura judizialak abusuak berak baino ondorio larriagoak ekar ditzazkeela (Save the Children, 2017). Save the Childrenek salatu izan duenez, izatez legedi edo araudi espainola behar bestekoa da, baina arazoa da hau ez dela behar bezala aplikatzen. Adibidez, Prozedura Zibilaren Legearen barne den “prejudizialitate penaleko printzipioa”ren arabera, auzi zibilak geldituko dira auzitegi penaleko auzia erabakigarria bada zibileko ebazpenean. Hala ere, prozedimendu penala zabalik dagoela ustezko aita

erasotzaileek ikuskatu gabeko harremana izan ohi dute ustezko biktimarekin, izan ere ohikoa da HKSA biktimarekiko urruntze agindurik ez izatea (Save the Children, 2017).

Sin embargo, la mayor parte de las resoluciones de los juzgados de familia, a pesar de haberse iniciado un proceso penal por presuntos abusos sexuales, orientan casi todas sus decisiones a dar más prioridad a la restauración y “normalización” de la relación paterno-filial de las niñas y los niños con sus padres denunciados que a la adopción de medidas cautelares de protección de las posibles víctimas (Save the Children, 2017, 116. or.)

Save the Children elkarteak gogoratzen duenez, kasua largetsi izanak ez du esan nahi aita errugabea denik, erruduna edo errugabea izatea frogatu ezin daitekeela baizik (2017).

Ondorioz, Ikerketa desberdinek azaleratu dutenez, biktimaren testigantza amak jaso ohi du (Pereda et al, 2018) eta gehiengo baten amek babesteko joera dute (Save the Children, 2017). Baina aita ustezko erasotzailea denean bereziki, ama (salaketa jartzen duena) ez sinisteko joera dago, bai eremu judizialean, bai gizarte zerbitzuen eremuan SAP/GAS argudiatuz (Save the Children, 2017; AMJE, 2019). Asociación de Mujeres Juezas de España elkarteak “Congreso multidisciplinar del SAP” kongresua antolatu zuen berriki, GAS-ak gaur egun haur eta emakumeen eskubideen urraketan izan duen dimentsio handia aztertzeke. Bertan azaldu zenez, familia barneko kasuen % 0,4 prozesatzen da eta % 0,008 kondenatuak dira (AMJE, 2019).

SAP/GAS faltsua pederastiaren aldeko psikiatra batek asmatu zuen. Gurasoak (ama izan ohi dena) haurra gertatu ez diren sexu abusu batzuek konbentzitu duela du oinarri eta seme/alabak aita gaitzesten duen kasuetan aplikatu ohi da. Ustezko sindrome hau sendatzeko “mehatxuaren terapia”, *threat therapy*, aplikatu behar da, haurra amaren eta amaren familiarengandik aldentuz, seme/alabak aita onartzen duen arte. GASaren (edota eufemismoen) aplikazioak komunitate zientifikoaren eta instituzioen gaitzespena ekarri du, besteak beste Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Espainiar Neuropsikiatria Elkarteak, Espainiar Pediatria Elkarteak eta Gizarte Langintzaren Kontseilu Nagusiak gaitzespen komunikatuak publikatu dituztelarik. SAP/GASaren aldeko kolektiboek DSM-V eskuliburuan SAP/GAS onartu zela zabaldu zuten, baina berrikusleek deklarazioak egin zituzten, eskuliburuaren sorreraren historian lehenengo aldiz, hau ukatuz eta “sindromeak” zuen oinarri zientifiko eza gogoraziz.

Are gehiago, sinesgarritzat jaso diren testigantzak, atzera bota dira dibortzio prozesu batetan alderdi baten interesekoak zirela argudiatuta (Save the Children, 2017). Maiz, bi eskubideen gatazka gisa planteatzen da; haurrak gurasoarekin harremana izateko eskubidea eta edozein formatako biolentziazik babestuta egoteko eskubidea. Ikuspuntu

hau ez da egokia, lehenengoa eskubide erlatiboa baita eta bigarrena absolutua (Save the Children, 2017).

2.7. Prebentzioa eta protekzioa

Prebentzioaren azterketari dagokionez lehen mailako prebentzioa, bigarren mailako prebentzioa eta hirugarren mailako prebentzioan antolatu da (Marcon, 2018):

a) *Lehen mailako prebentzioa*: alderdi honi dagokionez, aipatu beharra dago HKSAen prebentzio programek sexu abusuak pairatzeko arriskua erdira murrizten dutela ikusi dela (Save the Children, 2017). Hala ere, EAERI dagokionez, ez da HKSA prebentzio programarik aurkitu eta are gutxiago prebentzioa, biolentzia egoera batetan parte hartzen duten 3 elementuekin lantzen dituen: erasotzailea, biktimia eta ezer ez egiten ez dutenak. Prebentzioa baino, detekzio goiztiarra lantzen duten materialak topatu dira gaztelaniaz eta liburu bakarra euskarara itzulia, biktimarekiko lanketa/detekzioa helburu dutenak. Guzti honengatik, Save the children bezalako elkarteek gogoratzen dute ezinbestekoa dela EAEko curriculumean elementu prebentiboak txertatzea (2017).

b) *Bigarren mailako prebentzioa*: Nahiz eta formakuntzak detekzio eta notifikazioa maila hobetu profesionalen artean (Cerezo & Pons-Salvador, 2004) eta errebelazioa ahalbidetu biktimen artean (López & Del Campo, 2006), eskolek ez dute beraien potentzialtasuna aprobetxatzen (Greco, Guilera eta Pereda, 2017). Katalunian egindako ikerketa batetan hezkuntzako profesionalen % 86,4k formakuntzarik ez zuela adierazi zuten (Greco, et al, 2017). EAEko profesionalen formakuntzari dagokionez konkretuki, hurrekin harremana duten profesionalen gradu, master eta formakuntza jarraituan ez dago HKSA lanketarik (Save the Children, 2017). Ezta, hezkuntzako profesionalen graduei dagokionez, hezkuntza sexu-afektiboari buruzko ikasketarik ere (Martínez, et al, 2013). Aipatzekoa da EAEko hezkuntza protokoloak (2016) HKSA inguruko urteko formakuntza bat egingo dela ziurtatzen duela, baina ez da egin eta 2017ko aginduan ez zegoen PrestGaren gai proposamenen artean HKSA formakuntza espezifikorik.

Hezkuntzako profesionalen formakuntza bereziki garrantzitsua da izan ere, detekzio goiztiarra eta biktimizazio posible kasuen salaketa hein handi batetan langile hauen ezagutza, jarrera eta profesionalismoak baldintzatzen ditu, trebakuntza ere bereziki garrantzikoa delarik (Greco, et al, 2017). Autoreen iritziz lan sareak sortzea erabilgarria litzateke, notifikatzeko probabilitate gehiago duten pertsonen gutxiago dutenekin beraien ezagutza eta esperientziak konpartitu ditzaten. Izan ere hezkuntzako

profesionalak beraien lankideengana jo ohi dute beraien kezka konpartitzeko (Greco, et al, 2017)

Save the childrenek nabarmentzen du etengabeko formakuntzan ikastaroak txertatu behar direla (2017). Formakuntza hauetako gutxieneko edukiak susmo adierazleak (fisiko eta jokabidezkoak), haur eta abusatzailearen arteko harremanaren ezaugarriak, zaurgarritasun eta protekzio faktoreak, abusuak garapen ebolutiboan epe labur eta epe luzean izan ditzazkeen ondorioak eta susmo eta errebelazio baten aurrean jarraitu beharreko pausuak eta eman beharreko arreta liratezkeelarik (Save the Children, 2017).

2017ko ikerketa batetan oinarrituz, gazteekin hezkuntza sexualaz hitz egitea, biktimizazio esperientzia propioak lantzea (egotekotan) eta pornografía zer den eta sortzen dizkieten sentazioen kudeaketa lantzea, abusu egoerak prebenitzen lagunduko luketen 3 alderdi garrantzitsu izango lirateke (Pereda, et al, 2018). Izan ere, HKSA prebentzioa lantzen denean, hezkuntza sexu-afektibo programa zabalago batetan txertatu behar da, era berean, programak aplikatzerako orduan protekzio sistema ezagutu eta sistematizatua izan behar delarik, mota honetako programek detekzioa handitu ohi dutelako (López, 2000). Gogoratu beharra dago, hezkuntza sexu-afektibo programarik ez aplikatzeak, hezkuntza afektibo-sexuala egitea dela baita ere, nahiz eta nahiko ez genukeena izan.

Abusua ez jakinarazteko arrazoietan norbanakoarekiko faktoreak eta erreakzio sozialarekiko faktoreak daude, zeinetan profesionalek maiz ematen duten erantzun desegokia ere kokatzen den (Pereda et al, 2018). Kontutan hartu behar da Peredaren ikerketan adibidez, biktima helduen erdiek adierazi zutela erasotzailearekiko dependentzia emozionalak “gaur egun” arte irauten zuela (Pereda, 2018), berez biktimak abusatzailea traizionatzen ari dela senti dezake, bereziki aitaren figura denean (Pereda et al, 2018). 20 urtetako ikerketak biltzen dituen metanalisi kualitatibo batek adierazten duenez, konfiantzazko norbait eskura izatea, normala ez dela konturatzea, larritasun emozionala kudeatu ezin izatea, zeozer egitea nahi izatea, sinistua izango dela espero izatea eta galdetzea gako dira errebelazioa gerta dadin (Brennan eta McElvaney, 2020).

c) *Hirugarren mailako prebentzioa*: Edozein biktimizazio susmoren notifikazioa derrigorrezkoa da gaur egungo ordenamendu juridikoaren arabera (Greco, et al, 2017). EAEko Hezkuntza protokoloan susmo oinarritua izanez gero notifikatzeko derrigortasuna markatzen da, dokumentuan aldiz, susmo oinarritua zer den ez da zehazten, era berean urtero eguneratuko dela aipatzen bada ere, 2016ko bertsioa bakarra

da. Espainian, biktimak abusua kontatu zuen eskolen % 85ek ez zuen jarduketarik egin (Save the Children, 2017) eta ikertutako irakasleen % 72,8k HKSA zantzuak ikusi zituztela adierazi zuten, baina horietatik % 27,6k soilik notifikatu zuen (Greco, et al, 2017). Gainera irakasleen % 59k ez zekien HKSA protokolorik zegoen edo ez bere eskolan.

3. Haurren Kontrako Sexu Abusuen Sekretua Hausten: online ikastaroa

3.1. Helburua

Lan honen helburu nagusia haurrekin harremana duten hezkuntza profesionalentzako formazio publiko eta doako bat garatzea, burutzea eta ebaluatzea da. Halaber, plano orokorrago batean, ikastarotik eratorritako hausnarketen bitartez, gaiarekiko problematikari aurre egiteko sostengu sare bat sortzea helburu izango du ikastaro horrek.

3.2. Testuingurua eta Prozedura

HKSAei buruz EAEn dagoen kalitatezko eta ikerketa zientifikoan oinarritutako formakuntza publiko gabezia eta protokoloak orain arte bete ez den urteko formakuntza bat aintzat hartzen duela kontuan izanik, Gradu Amaierako Lan honen egileak, Gure Sarea Elkartearen babesean 25 orduko formakuntza proposamen bat sortu zuen alde aurretiko froga pilotuan oinarrituz (Urizar, 2018).

Proposamen hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuak 2018-2019-ko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest-Gara Plana garatzeko proiektu proposamenen lehiaketa publikora aurkeztu zen eta bertan onartua izan zen (1865CZZ324 esleipen kodigoa). Ikastaroa Prest-Gara planaren barnean 2019ko otsailetik apirilera garatu zen.

3.3. HKSAei buruzko ikastaroaren sorrera: aurretiko ikerketa eta balidazioa

Gradu Amaierako Lan honetan aurkeztu den HKSAei buruzko online formazioa gaian ibilbide luze baten ondorio da. Ibilbide horrek formazioa sortze aldera bi ardatz ditu. Alde batetik 2016, 2017 urteetan HKSAei buruz antolatutako jardunaldiak. Bestetik Prest-Gara planeko formakuntza balidatzeko online formazioa.

3.3.1. HkASei buruzko jardunaldiak: Ezagutza eta usteen azterketa

“Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual contra la Infancia/Haurren kontrako Sexu Abusuen Sekretua hausten Jardunaldiak” 2016. Urtean hasi ziren antolatzen ordutik urtero antolatu direlarik, azken urtean 2019an, 1000 pertsona baino gehiago batuaz UPV/EHU-ko Areto Nagusian (ikus 1. eranskina). Halere, ikastaro konkretu hau diseinatzeko 2017. urtean burututako jardunaldien II. edizioaz baliatu ginen profesional, etorkizuneko profesional eta interesdunen pertsonen HKSA-en formazio baten inguruko beharrei buruz itauntzeko. Horretarako 11 item zituen 1-6 likert eskalako galdetegia erantzuteko eskatu zitzaien (1=oso desados; 6= oso ados) (ikus 2. eranskina). Lagina 244 pertsonak osatu zuten, % 84 emakumea eta % 9 gizona. Laginaren % 62 ikasleak ziren eta % 38 profesionalak. Profesionalen artean % 68,8 hezkuntzako profesionalak ziren. Emaitza esanguratsuenak hurrengoak izan ziren: erantzuleen % 69k gaiaren inguruko formakuntzarik ez zuela adierazi zuen, profesionalen artean formakuntza eza % 44k adierazi zuen arren. Halere formakuntza zuten profesionalen artean % 69k formakuntza ez formala zuela esan zuen eta profesionalen % 12k soilik uste zuen kasu baten aurrean jarduteko formazio nahiko zuela, hezkuntzako profesionalen artean % 8 izan zirelarik. Deigarria da formakuntza zuten profesionalen artean % 20k jarduteko formakuntza nahiko ez zutela adierazi zutela. Formakuntza beharri dagokionez, profesionalen % 96k, irakaskuntzako langileen % 88 k eta formakuntza duten profesionalen % 94k behar hori nabarmendu zuten. Jardunaldian aurkeztutako informazioaren ostean, profesionalen % 96k gehiago sakondu nahiko luketela adierazi zuten, item honetan profesional bakar batek ere ez zuen desadostasunik azaldu. Profesionalen % 98k prozedimenduak ezagutzea oso garrantzitsutzat jaso bazuten ere, soilik profesionalen % 11k, irakaskuntzako profesionalen % 4k eta formakuntza duten profesionalen % 12k adierazi zuen protokoloa ezagutzen zuela. Era berean, profesionalen artean gaian sakontzeko nahia (% 92,6) eta problematikarekiko sare bat sortzearen beharra (% 99) berretsi ziren. Profesionalen kolektiboaren beharrian formatiboaren emaitzak aztertuz, proiektuak izan beharko lituzkeen lau atal nagusiak azaleratu ziren: HKSari buruzko datuak ezagutzea, atal judiziala lantzea, prebentzio eremua aztertzea eta protokoloak lantzea.

3.3.2. Aurre balidazioa

Aipatu berri ditugun behar horiek oinarri izanik eta HKSari buruzko bilketa bibliografiko sakon batean oinarrituz online formakuntza pilotu bat sortu eta balidatu

zen (Urizar, 2018). Formakuntza pilotuan 243 pertsonen eman zuten izena, horietatik % 91,36 emakumeak ziren (% 52,7 profesionalak eta % 47,3 ikasleak) eta % 8,64 gizonak (% 38,1 profesionalak eta % 61,9 ikasleak).

Egindako formakuntza pilotuaren baloraziorako metodologia mistoa erabili zen, datu kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu ziren eta lagina 243 pertsonen osatu zuten. Arlo kuantitatiboak ikastaroan parte hartu zuten pertsonen asebetetasun maila neurtzen dute, kualitatiboek aldiz barne sareko interakzioen azterketa azaldu zuen.

Datu kuantitatiboak jasotzeko beren beregi sortutako 15 itemeko ase betetasun inkesta erabili zen. Azterketa kuantitatiboaren bitartez ikastaroak parte-hartzaileen % 94,6ren igurikapenak bete zituela ikusi zen, era berean moduluen ikuspuntu eta egokitasunarekin ase betetasun maila altuena ondorengo partehartzaile proportzioek adierazi zuten: 1) “El ASI en datos”, % 100; 2) “Más allá de la justicia”, % 97,3; “Figura protectora”, % 100; 4) “¿Podemos prevenir el ASI?”, % 100; 5) “Protocolos de actuación”, % 100.

Beste alde batetik, % 91,7k plataforma argia eta erabilerraza zela adierazi zuten eta ikastaroko material desberdinen egokitasun maila altuena adierazi zuten: % 97,3k material didaktikoekin, % 94k ikus entzunezkoekin, % 97,3k idatzizko materialekin eta % 95,6k material osagarriekin. Plataformak eskaintzen zuen sarearen sorrerari dagokionez, % 100ek sare ikuspegia oso egokia zela berretsi zuten eta % 94,4k ikastaroan zehar sarea erabilgarria suertatu zitzaizela adierazi zuten. Azken kalifikazioari dagokionez, % 56,7k bikain baloratu zuten prestakuntza, eta % 43,2k, berriz, oso ongi. Azkenik, parte-hartzaile guztiek adierazi zuten formakuntza ezagun edo interesdunei gomendatuko lieketela.

Balorazio kualitatiboaren bitartez egiaztatu zen prestakuntzak kolektibo desberdinen arteko sare eta sinergiak sortzen lagundu zuela. Izan ere, sortutako sarearen bidez, partehartzaileek beraien artean gaiari buruzko kontaktu, erreferentzia eta material interesgarri ugari partekatu zuten.

Ikastaroaren froga pilotua, honen aurrean partehartzaileek egindako balorazioa eta ikusitako behar formatiboak kontuan hartuta, aurkeztu den Prest-Gara diseinatu zen, horretarako formakuntza pilotua euskaratu, eguneratu eta hezkuntza profesionali egokituz. Erkidegoan aktiboan dauden irakasleentzako HKSAei buruzko lehenengo formakuntza homologatua sortu zelarik.

3.4. HKSAei buruzko ikastaroaren helburu orokorrak

Ikastaroaren helburu orokorrak hurrengoak dira: a) HKSAen problematika ezagutzea: definizioa, mitoen argipena, biktimen eta erasotzaileen profila, prebalentzia-datuak, etab. b) HKSA salatzeak dakarren prozesu judiziala ezagutzea: epaitegi zibilak eta penalak, kasuen egungo egoera, salaketa-kopurua, etab. c) Biktimen adierazle psikologikoetan eta adierazle fisikoetan sakontzea, irakasleak detekzioan eta prebentzioan trebatzeko. d) Haurren sexu-abusu baten aurrean profesional gisa nola jardun behar den lantzea, biktimaren arreta eta ingurune hurbilarekiko komunikazio-/lankidetzaprozesuak jorratuz. e) Gaur egun indarrean dauden haurren kontrako sexu abusuen jarduketa protokoloak aztertzea eta hausnarketa kritikoa burutzea. f) Haurren kontrako sexu abusuen lanketa ahalbidetuko duen sare soziala eraikitzea.

3.5. Metodologia

Ikastaroa metodologia aktiboen bitartez garatu zen, metodologia parte-hartzailea bultzatuz, baina beti ere gaiak eskatzen duen diskrezio eta anonimotasuna mantenduz. Ikastaroa 6 astetan zehar burutu zen, *Blended Learning* estruktura eta ezaugarriak mantenduz. Ikastaroa Wix doako plataforman eraiki zen, tresna honek eskaintzen duen erabilgarritasuna eta praktikotasunagaitik. Plataforma digital horretaz gain, Band sare sozial itxian foro bat jarri zen zalantzak argitzeko eta jorratutako gaiei buruz eztabaidatzeko. Metodologian parte-hartzaileek informazioa eta edukiak jasotzeaz gain, beraien iritziak, azterketak, dudak eta ezin egonak konpartitzea zuen xede nagusia. Ikastaroko formatzaileak gidari rola hartu zuten, plataformako sare sozial itxian hausnarketa eta eztabaida sustatuz. Ikastaroaren diseinuari esker jardunean zeuden irakasleriak ezagutzak barneratzeaz gain, komunitatean gogoeta egin eta esperientziak elkarbanatzeko bideak izan zituzten.

3.6. Parte-hartzaileak

Ikastaroan 60 pertsona baino gehiagok izena eman zuten arren, onarpen irizpideak zirela medio azkenean 17 irakasle burutu zuten ikastaroa. 14 emakume eta 3 gizon, haietariko 16k eskola publikoan egiten zuten lan eta irakasle batek sare kontzertatuan. Lau Haur Hezkuntzako irakasleak ziren, sei Lehen Hezkuntzakoak eta bat Bigarren Hezkuntzakoak. Entzumen eta hizkuntzako bi espezialista, pedagogia terapeutikoko bi espezialista eta bi aholkulari ere bazeuden.

3.7. Ezagutzen aurre-ebaluazioa

Ikastaroa hasi baino lehenago ezagutzen aurre-ebaluazio bat egin zen, 34 itemeko galdesorta baten bitartez (ikus 3 eranskina), emaitza esanguratsuenak hurrengoak izanik: % 93,8k ez zuen gaien formakuntzarik, % 100ek ez zuen HKSA ebaluatzeko metodorik ezagutzen, % 87,5ek ez zituen HKSAen ondorio legalak ezagutzen, % 81,3k ez zuen protokoloa sakon ezagutzen eta % 75ek uste zuen ez dela ohikoa HKSA susmoa dagoenean haurra sinestea eta protokoloa aktibatzea. % 31,1ek HKSA definitzeko kriterio nagusia haurraren onarpen eza zela erantzun zuten, % 75ek ehuneko handi batetan beste biolentzia mota batekin batera ematen dela eta % 12,5ek abusua 10-11 urte tartean hasi eta familiarik kanpo ematen dela uste zuten. % 62,5ek helduen testigantza haurrena baino sinesgarriagoa dela eta % 6,3k askotan haurrak beste heldu baten eraginez, sexu abusua asmatzen duela. Erasotzaileei dagokionez, % 43,8ren aburuz erasotzaileak ezin du biktimaren adin bera izan, % 37,5k uste du erasotzaileak burutik gaixo daudela, % 18,8k biktimarentzako pertsona ezezagunak direla eta % 12,5ek ezin ditzaketela beraien bulkada sexualak kontrolatu. Amaitzeko, % 93,8k inguruko haur batek sexu abusua pairatuko balitu, konturatzeko gai ez litzatekela esan zuten.

3.8 Ikastaroaren garapena

HKSAei buruzko ikastaro hau erdi-presentziala izan zen, lehen eta azken saioak aurrez aurrekoak izan zirelarik. Zehazki, online ikastaroari hasiera emateko 2 orduko aurrez aurreko saio bat egin zen, gaiari sarrera gisa, lehen jarduera gidatua egiteko eta erabiliko ziren baliabide digitalak azaltzeko. Hurrengo lau astetan plataforma digitalaren bitartez, asteko modulu bat landu zen eta ikastaroaren seigarren astean, 2 orduko aurrez-aurreko azken saio bat egin zen. Azken saioaren hasieran, txosten bat aurkeztu zen ikastaroan landutako gaiak sakonduz. Azkenik, saio presentzial horretako azken ordu eta erdia parte-hartzaileen arteko truke, hausnarketa eta eztabaida errazteko erabili zen, solasaldi dialogikoen metodologia aplikatuz. Hau da, ikastaroan zehar egindako lana berreskuratuz, kontsultatutako testuen ideia deigarrienak nabarmendu ziren.

Gainera, ikasitakoari buruzko orokortze eta transferentzia ebaluatzeari begira, azken gogoeta-lan bat egiteko eskatu zitzaizen parte-hartzaileei, beren ikastetxean kasu hipotetiko batean nola jokatuko luketen deskribatuz. Era berean, email bidez 2 galdetegi luzatu zitzaizkien azken ebaluazio bezala, ikasitakoaren balorazioa egin ahal izateko

(ikus 4. eranskina) eta ikastaroaren autoezagutza pertzepzioa, ikastaroan ikasitakoa eta hobetzeko proposamenak jasotzeko (ikus 5. eranskina).

3.9. Ikastaroaren deskribapena

“Haurren kontrako Sexu Abusuen (HKSA) Sekretua hausten” ikastaroa (<https://sostengusarea.wixsite.com/sostengusarea> linkean duzue ikusgai) 4 modulutan egituratzen da: “HKSA datuetan”, “Justizia eta babes figura”, “HKSA prebenitu dezakegu?” eta “Jardute protokoloak”. Modulu guztiek egitura bera mantendu dute, parte-hartzaileei ikaskuntza errazteari begira, era berean: 1) Prestakuntza honetarako beren beregi sortutako berrikuspen teorikoko dokumentu bat. 2) Ikus entzuneko materiala: zehazki Enrique Echeburúa (EHUko Psikologiako katedraduna), Pilar Polo (Vicki Bernadet Fundazioko prestakuntza-burua), Margarita García Marqués (HKSAetan espezializatutako psikologo klinikoa) adituei eta biktima baten amari formakuntza honetarako beren beregi egindako elkarrizketa. 3) Gomendio bibliografikoetan oinarritutako material osagarria. 4) Erantzun eta entregatu beharreko jarduerak. Gainera, modulu guztietan parte-hartzaileei Band sare sozialean deigarriena suertatu zitzaizen informazioa nabarmentzeko eskatu zitzaizen.

Gaiaren sarrera gisa, aurkezpen bideo bat, deskribapen labur bat eta ikastaroaren helburuak irakur daitezke (ikus 6. eranskina). Modulu bakoitza astero gaitzen zen arren, plataformako hasiera orrialdean bloke bakoitzaren izenburuak eta aurkezpen-bideoak agertzen ziren hasieratik, landuko ziren edukien aurrerapen gisa (ikus 7.eranskina). Modulu bakoitzeko tituluek aukera ematen dute dagozkien ataletan sartzeko, hiperesteka baten bidez. Ondorengo pasarteetan ikastaroa osatzen duten 4 moduluak azalduko ditugu beraietako bakoitzaren bidez landutako helburu zehatzak ere plazaratuaz:

Lehenengo modulua “HKSA datuetan” (ikus 8. eranskina) izenburupean gaien murgiltzeko lehen atala da. Modulua helburu zehatzak hurrengoak dira: haurren kontrako sexu abusuen problematikaren kontzeptuak ezagutzea eta lantzea; gaur egun bibliografiak jasotako prebalentzia datuak lantzea; biktima eta erasotzaileei buruz gaur egungo bibliografiak jasotako datuak ezagutzea eta salaketa kopuruak ezagutzea. Moduluan bloke guztietan mantendu den egitura bat agertzen da, azaldutako ordenan: blokearen deskribapen laburra, helburu espezifikoak, bideo labur bat, irakurri beharreko testu bat, material gehigarriko estekak eta proposatutako jarduerak.

Bideoan Pilar Polo eta Margarita García-ri egindako elkarrizketak ikus daiteke. Irakurri beharreko dokumentuan hurren kontrako sexu abusuen definizioa, 18 urte baino gutxiagoko abusatzaileekiko datuak, biktimekiko eta erasotzaileekiko beste herrialdetako, Espainiako eta EAE-ko datuak, internet bidezko jazarpenekiko datuak, erasoen maiztasuna, gizarteak eraso hauekiko izan dezakeen eragina eta modu orokor batean abusua aurrera eramateko erasotzaileak erabili ohi dituen estrategiak azaltzen dira. Ostean, 10 esteka daude gaiaren testuinguruan kokatzeko datu gehiago luzatzen direlarik. Azkenik gogoetarako 3 galdera daude, modulu guztietan errepikatzen den egitura mantenduz, horietako bat beti sareari lagundu edo ekarpena egiteari begira bideratua. Galdera bakoitzak *hashtag* bat du (#HKSAdatuetan, #HkSAdatuetanBotereGehiegikeria eta #HkSAdatuetanSostenguSarea) eta *hashtag*-a hiperesteka baten bitartez “Gure sarea” orrialdera bideratzen du. Galdera hauek BAND aplikazioaren bitartez erantzuten dira, aplikazioak berak *hashtag*-ka antolatzen dituelarik erantzunak.

Bigarrena, “Justizia eta Babes figura” modulua, bi zatitan banatuta dagoen modulu bakarra da, ulerterraza izateko horrela egituratu delako; “Justizia” eta “Babes figura”. Modulua helburu zehatzak hurrengoak dira: Hurren eskubideen irakurketa historikoa ezagutzea; XIX. mendetik gaur egunarteko hurren kontrako sexu abusuen egoera juridikoa aztertzea; hurren kontrako sexu abusuen gaur egungo egoera judiziala ezagutzea; intzestu kasuetako ama babesleekin enpatia lantzea eta ama babesleen egoera eta emozioez hausnartzea. “Justizia” (ikus 9. eranskina) atalak aurreko moduluko egitura bera du: blokearen deskribapen laburra, helburu espezifikoa, irakurri beharreko testu bat, material gehigarriko 5 esteka eta proposatutako jarduerak. Zati honetan ez da bideorik ezarri “Babes figura” atalean jarri delako. “Justizia” ataleko dokumentuan hurren eskubideen irakurketa historikoa egiten da eta honen ostean gaiaren gaur egungo egoera judizialaren irakurketa hainbat adituen datuak azaleratuz. Ondoren hausnartzeko 3 galdera luzatzen dira, dagokien *hashtag*-ekin (#Justizia, #Justizia2 eta #Justizia3), hauetako azkena, aurreko atalean bezala aipatutako sarea sortzeari begira. Hiru galderen arteko bigarren hurrenkiko errespetuzko praktika judizial bat agertzen da, Islandiakoa hain zuzen. Bigarren bloke honetako bigarren zatian, “Babes figura”-n (ikus 10. eranskina), atalaren azalpen laburra, helburu espezifikoa, aitarengatik abusatutako haur baten amaren testigantza jasotzen duen bideoa, irakurri beharreko testua eta hausnartzeko jarduerak ikus daitezke. Testua “Madres de Hierro” liburuaren hitzaurrea da, María Cecilia López adituak idatzia. Bertan gaur egun profesionalen eta

gizartearen aldetik haurren babes figurek (amak izan ohi direnak) pairatu behar duten sinesgarritasun eza azaleratzen da. Amaitzeko hausnartzeko 3 galdera luzatzen dira dagokien *hashtag*-arekin (#lasmadresdehierro1, #lasmadresdehierro2 eta #lasmadresdehierro3), bigarrena foroko kideekin feedback-a egiteko eskatuz eta hirugarrena lehen esan bezala, sarea sortzeari begira bideratua.

“HKSA prebenitu daiteke?” (ikus 11. eranskina) hirugarren blokearen helburu zehatzak hurrengoak dira: Detekzioa ahalbidetzen dituzten baliabideez hornitzea; haur sexualitateari buruzko mitoak argitzea; haurren kontrako sexu abusuen ondorio fisiko eta psikologiak ezagutzea; prebentzio programak aurrera eramateko irizpideetara hurbiltzea eta abusu testigantza baten haurren jarraitu beharreko irizpideak ezagutzea. Blokearen deskribapen laburra, helburu zehatzak, bideo labur bat, irakurri beharreko testu bat, material gehigarriko 14 esteka, bi prebentzio esperientzia, prebentzio gida bi eta proposatutako jarduerak agertzen dira. Bideoan Enrique Echeburúa psikologo klinikoari eta Margarita García psikologoari egin zitzaizkion elkarrizketak ikus daitezke. Testua eta blokea bera lauretatik luzeena da, prebentzioaren atala interes gehien sortzen duen gaia delako. Irakurri beharreko dokumentuan hurrengo gaiak jorratzen dira: lekukotza faltsuen mitoa, prebentzio programa bat aplikatzerakoan jarraitu beharreko pausuak, haurtzaroan egiteko edo jarduera prebentiboa gauzatzeko jarraibideak, haurren garapen sexualaren barne dauden eta ez dauden jarreraren azalpena, arrisku faktoreak, abusuaren adierazleak (0 urtetik 21 urtera), behin errebelazio baten aurrean izanda jarraitu beharreko pausuak, abusuaren ondorio psikologiko, emozional eta fisikoak eta biktimen izaera ulertzeko beharrezkoak diren akomodazio eta disoziazio kontzeptuen azalpena. Era berean azken bi kontzeptu hauek ulertzeko baliagarria izango den emakume heldu baten esperientzia, haurra zenean bere aitarengatik abusatua izan zena jasotzen duen testua ere badago. Azkenik erasotzaileek biktimarekin erabili ohi duten jazarpen prozesu psikologikoa sakonago azaldu da. Material gehigarriaren barne Vinka Jackson gaian aditua den psikologoak prestatutako hainbat infografia daude, irakasle baten egunerokoan erabilgarriak izan daitezkeenak. Beste alde batetik Pepa Horno, Pilar Polo eta Margarita García adituen aholkuak jasotzen dituzten artikulua eta elkarrizketak daude. Eskainitako materialari amaiera emanez, haur hezkuntza garairako bi programa prebentibo eskaintzen dira. Blokearekin amaitzeko hausnartzeko 5 galdera luzatzen dira, bakoitza bere *hashtag*-arekin (#Prebentzioa1, #Prebentzioa2, #Prebentzioa3, #Prebentzioa4 eta #PrebentzioaSarean5). Aurrekoen egitura mantenduz, azkeneko galdera sarea sortzeari begira bideratuta dago. Aipatu beharra dago bi galdera

ezagutzak elkarbanatzera bideratuak daudela, prebentzio kanpainak eta gaiarekiko elkarleen ezagutzaz behinik behin.

“Jardute protokoloak” (ikus 12. eranskina) moduluaren helburu zehatzak EAE indarrean dagoen hezkuntza protokoloaren atal nagusiak ezagutzea eta hezkuntza protokoloei dagokionez dauden beste esperientziak aztertzea dira. Bertan bloke guztietan mantendu den egitura agertzen da: blokearen deskribapen laburra, helburu espezifikokoak, bideo labur bat, irakurri beharreko testu bat, material gehigarriko 5 esteka eta proposatutako jarduerak. Bideoa Oiane del Cura Bigarren Hezkuntzako irakasleari egindako elkarrizketa bat da zeinetan EAE-ko protokoloaren hainbat alderdiren inguruan hausnartzen duen. Honen ostean, irakurri beharreko dokumentua dago, EAE-ko protokoloa. Gainera, protokolo hau gaztelaniaz ere eskaintzen da material gehigarri gisa. Material gehigarrietako beste dokumentuak Buenos Aires probintziako prebentzio gida bat, Kantabriako Autonomia Erkidegoko gida bat eta gurasoentzako Márgenes y Vinculos fundazioak Gobernu espainiarrarekin batera argitaratutako gida bat dira. Amaitzeko hausnartzeko lau galdera luzatzen dira dagokien *hashtag*-ekin (#Protokoloak1, #Protokoloak2, #Protokoloak3 eta #ProtokoloakSarean4). Lehenengo galderan, Txileko bi eskoletako barne protokolo bi eskaintzen dira eta laugarren galderan berriro ere, ikasitako guztia kontutan hartuz sareak nola lagundu dezakeen galdetzen da.

Jardueren garapenerako ezinbestekoa da “Gure Sarea” (ikus 13. eranskina) erlaitza. Webguneko atal honetan partehartzaileek beraien arteko komunikazioa era eraginkor eta seguruan egiteko aukera zuten. BAND sare sozial itxia eta doakoa erabili zen eta modulu bakoitzeko jardueretan agertzen diren gaiei buruzko gogoetak elkartrukatzeko erabili zen. Horretarako atal honen goialdean BAND aplikazioa erabiltzeko jarraitu beharreko pausuak azaltzen dira zehatz mehatz, lehenengo pausuan aplikaziora eramaten duen hiperesteka duelarik. Azpian bloke bakoitza azaltzen da eta bakoitzaren azpian dagozkien *hashtag*-ak. *Hashtag* hauetako bakoitzak hiperesteka du BAND foroko modulu bakoitzera eramateko. Modulu bakoitzeko izenburuaren gainean, foroak aktibatuak zeudela gogorarazteko “aktibo” jarri zen asteak pasa ahala.

Azaldutakoaz gain “Berriak eta Sare Sozialak” eta “Kontaktua” erlaitzak daude. Lehenengoan klikatuz (ikus 14. Eranskina) @sostengusarea Twitterreko kontuaren historia ikus daiteke. Bertan argitaratzen dena jarraitu ahal da nahiz eta sare sozialean konturik ez izan. Bigarrenean klikatuz zalantzaren bat edo kontsultaren bat egin nahi izatekotan luzatzen den helbide elektronikoa irakur daiteke.

Ikastaro osoan zehar modulu berri bat irekitzen zen bakoitzean parte-hartzaileei email bat bidali zitzaien gogorarazteko eta foro bakoitza zabaltzerakoan berdina egin zen.

3.10. Ikastaroaren balorazioa

HKSAei buruzko ikastaro hau ebaluatzeko bi alderdi izango ditugu kontuan: ezagutzen eskurapena eta parte-hartzaileek adierazitako asebetetze maila.

Parte-hartzaileen ezagutzen eskurapena 5 ataletan ebaluatu zen: 1) Parte-hartzea eta online plataformaren erabilera. 2) Band sare sozial itxian parte-hartzea. 3) Moduluetakoa jarduerak. 4) Aurrez-aurreko saioretara bertaratzea eta parte-hartzea. 5) Azken lan praktikoa. Orokorrean ezagutzen eskuratzea positiboki baloratu zen, batz besteko azken nota 8,1 izanik eta ikasleen interes handia azpimarratuz.

Prestakuntza-ikastaroaren parte-hartzaileen balorazioari dagokionez, adierazi bezala, galdetegi sakon bat prestatu zen (ikus 14. eranskina) asebetetze-maila neurtzeko eta hobetzeko proposamenak jasotzeko. Hurrengo lerroetan prestakuntzari buruzko adierazle-talde nagusien batez besteko nota jaso da (10etik): Prestakuntza-ikastaroaren edukien egokitasuna (8,7); metodologia eta baliabideak (8,2); eskuratutako ezagutzak (8,9); formatzailearen profesionaltasuna (9,2); ikastaroaren iraupena (8), ikastaroaren antolaketa (9); jasotako prestakuntzarekiko gogobetetzea (9) eta ikastaroa beste profesionaleri gomendatuko lieke (9).

Era berean, ikastaroak amaierako balorazio bikaina jaso zuen (10etik 9,5), eta parte hartu zutenek azpimarratu zuten problematikari buruzko prestakuntza behar zela, irakasleriaren artean ezagutza falta nabarmena dagoelako. Gainera, parte-hartzaile gehienek abusu kasuren batekin aurretiko esperientziaren bat izan zutela adierazi zuten eta babesgabe sentitu izan zirela jarduteko orduan.

Ikastaroaren ordu kopurua txikia dela eta, arazoaren lehen hurbilketa baino ez zen egin, hala ere, parte hartu zutenek gaian sakontzeko interesa adierazi zuten. Horren aurrean, eta online formatuari esker, material gehigarria eman zitzaien prestatzen jarraitu ahal izateko.

4. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honetan deskribatu berri dugun esperientzia honetatik ondorioztatzen da HKSAei buruzko ebidentzia zientifikoan oinarritutako eta homologatutako formazioa guztiz beharrezkoa dela hezkuntza profesionalentzako. Hasteko, legalki irakasleek formakuntza hori jasotzeko eskubidea eta betebeharra

dutelako, lan honetan behin eta berriro aipatu dugun dekretuan dioen bezala (Eusko Jaurlaritzak, 2016). Bigarrenik HKSAk, sarri isilpean bada ere umeen proportzio handi bati eragiten dien gaitza direlako (Save the Children, 2017), eta irakasleak direlako ume populazioarekin kontaktu zuzen gehien duten profesionalak eta ondorioz detekzioarako eta prebentzioarako gako izango direnak. Eta azkenik, gizarte gisa ere haurrak eraso hauetatik babesteko sare batean irakasleen figura gako izango delako.

Prestakuntza hori unibertsitateko graduetan edo graduondokoetan hasi beharko litzateke, baina etengabeko prestakuntzara ere iritsi beharko litzateke, esperientzia honen gisara. Bide horretan lanean jarraiki, Gradu Amaierako Lan honetan azaldutako formazioa UPV/EHU-ko ikasleria eta irakasleria guztiari eskaintzeko hitzarmena sinatua berri dugu UPV/EHU-ko Berdintasun Errektoreordetzarekin eta datorren urtera begira berriro ere Prest-Gara programaren barruan ikastaroko esleipena lortu dugu.

Halaber etorkizuneko lan ildo gisa garrantzitsutzat jotzen dugu hezkuntzako profesionalen gain bestelako profesional publiko zein pribatuentzako ebidentzian oinarritutako ikastaro hau hedatzea. Eta baita gai honi buruzko difusio zientifikoa egitea, alorreko aldizkari zientifikoetan euskaraz publikatzea bereziki gako izan daitekelarik publikapen horiek hezkuntza profesionaleri eta unibertsitateko ikasleria eta irakasleriari helarazteko.

Laburrean, ezin dezakegu har haurrek biktimizazio bikoitza jasateko arriskatu, lehenik abusatzaileak sortutakoa, eta bigarrenik estigma sozialak edota jardute desegokiaren ondoriozko kalte psikologikoen sortutakoak. Horretarako, funtsezkoa da hezkuntzako profesionalen formakuntza, biktimari bertatik bertara lagun diezaiotzekulako, egunegun, ikasgeletako jardunean eta lan honen bidez hein txiki batean bada ere hori lortu baldin badugu, aurrera jarraitzeko arrazoi nahikoa izango da.

5. Jarraibide etikoak

GRAL honetan etika printzipioak errespetatu dira, besteak beste Giza Eskubideak errepertatzeko printzipioa, ekintza subjektuak errespetatzeko printzipioa eta informazio arduratsuaren printzipioa. Lanaren ikuspuntuari dagokionez haurren eskubideak izan dira oinarri, datuen konfidetzialtasuna bermatu da eta parte hartzaileen anonimotasuna bermatu da ikerketa idatzi guztian zehar. Emakume ikerlarien izena.

6. Erreferentziak¹

- Ballester, Rafael eta Gil, María Dolores. (2006). La sexualidad en niños de 9 a 14 años. *Psicotherma*, 18(1), 25-30. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/T49vV2020/02/4>
- Brennan, Emma eta McElvaney, Rosaleen. (2020). What Helps Children Tell? A Qualitative Meta-Analysis of Child Sexual Abuse Disclosure. *Child Abuse Review*. DOI: 10.1002/car.2617
- Comunicación Poder Judicial (14 de junio del 2016). El Tribunal Supremo constata que la proporción de falsos relatos de abuso sexual infantil por parte de las víctimas es muy reducida. *Poder Judicial España*. Recuperado de: <https://url2.cl/CHILJ>
- Cyr, Mireille, Frappier, Jean-Yves, Hébert, Martine, Tourigny, Marc, McDuff, Pierre eta Turcotte, Marie-Eve. (2018). Impact of child sexual abuse disclosure on the health of nonoffending parents: A longitudinal perspective. *Journal of Child Custody*, 15(2), 147–167. doi:10.1080/15379418.2018.1460649
- Echeburúa, Enrique, eta Guerricaechevarría, Cristina. (2015). *Abuso sexual en la infancia: Víctimas y agresores*. Barcelona: Ariel.
- Eusko Jaurlaritzak (2016). *Hezkuntza-arloko prebentzio-eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratatu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzak eta koordinaziorako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.
- Eusko Jaurlaritzak (2018). AGINDUA, 2018ko apirilaren 17koa, *Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten baitzaie Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest-Gara Plana garatzeko 2018-2019 ikasturtean zehar proiektuak aurkeztuz Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu nahi duten erakunde publiko eta pribatuei*. [PDF]. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/zv8LD>
- Greco, Ana M., Guiler, Georgina eta Pereda, Noemí. (2017). School staff members experience and knowledge in the reporting of potential child and youth victimization. *Child Abuse & Neglect*, 72, 22-31. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2017.07.004>
- Hammel-Zabin, Amy. (2005). *Conversaciones con un pederasta. Manual para prevenir la pedofilia a través del diálogo entre una víctima y un verdugo*. Madrid: Martínez Roca.
- Intebi, Irene. (2007). *Valoración de sospechas de abuso sexual infantil*. Cantabria: Dirección General de Políticas Sociales.
- Intebi, Irene. (2011). *Abuso sexual infantil en las mejores familias*. Buenos Aires: Granica.
- Interagency Working Group on Sexual Exploitation of Children (2016). *Orientaciones terminológicas para la protección de niñas, niños y adolescentes contra la explotación y el abuso sexuales* [PDF]. Bangkok: ECPAT International. Hemendik

¹Emakumeen izen osoak eta hitz-hasierak idatzi ditugu emakume ikertzaileen rola azalertzeko, horrela gomendatzen delako ere genero ikuspegia aplikatzerako orduan.

berreskuratua: <https://url2.cl/utuAi>

- Jiménez, Jorge. (2012). Tráfico de pornografía infantil: dinámica, roles y prevención. *Gaceta internacional de ciencias forenses*, (5), 33-41. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/ky7Uz>, 2020/02/4
- Kanter, Bárbara. eta Pereda, Noemí. (2020). Victimization Sexual en la Infancia e Intervención Basada en la Evidencia: La Terapia Cognitivo-Conductual Focalizada en el Trauma. *Revista de Psicoterapia*, 31(115), 197-212. <https://doi.org/10.33898/rdp.v31i115.313>
- Lameiras, María, Carrera, María Victoria eta Faílde, José María. (2008). Abusos sexuales a menores, estado de la cuestión a nivel nacional e internacional. *ICEV. Revista d'Estudis de la Violencia*, (6), 1-23. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/PRwL7>
- López-Soler, Concepción. (2008). Las reacciones postraumáticas en la infancia y adolescencia maltratada: el trauma complejo. *Revista de Psicopatología y Psicología Clínica*, 13(3), 159-174. DOI: <https://doi.org/10.5944/rppc.vol.13.num.3.2008.4057>
- López, Félix. (2015). *Prevención de los abusos sexuales de menores y educación sexual*. Salamanca: Amarú.
- Marco, Maria Pilar. (2018). El abuso sexual infantil. *La ley penal*, (131). Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/D6CsG> 2020/02/1
- Martínez, José Luis, González, Eva, Vicario-Molina, Isabel, Fernández-Fuertes, Andrés A., Carcedo, Rodrigo J., Fuertes, Antonio eta Orgaz, Begoña (2013). Formación del profesorado en educación sexual: pasado, presente y futuro. *Magister: Revista miscelánea de investigación*, 25(1), 35-42. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/VUVhR>, 2020/01/01
- Montiel, Irene (2014). *Victimización juvenil sexual online: Incidencia, características, gravedad y co-ocurrencia con otras formas de victimización electrónica* [Tesi doctorala]. Valencia: Universidad de Valencia
- Montiel, Irene, Carbonell, Enrique eta Salom, Miriam. (2014). Victimización Infantil Sexual Online: Online Grooming, Ciberabuso y Ciberacoso sexual. En Tirant lo Blanch (Ed.), *Delitos sexuales contra menores. Abordaje psicológico, jurídico y policial* (203-224 orr.). Valencia: Tirant lo Blanch.
- Pereda, Noemí. (2009). Consecuencias psicológicas iniciales del abuso sexual infantil. *Papeles del Psicólogo*, 30(2), 135-144. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/WjdVZ>, 2019/10/16.
- Pereda, Noemí (2010a). El espectro del abuso sexual en la infancia: definición y tipología. *Psicopatol. salud ment.* (16), 69-78. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/SmdXt>
- Pereda, Noemí. (2010b). Consecuencias psicológicas a largo plazo del abuso sexual infantil. *Papeles del psicólogo*, 31(2), 191-201. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/sKP7E>, 2019/11/17.
- Pereda, Noemí. (2010c). Actualización de las consecuencias físicas del abuso sexual infantil. *Revista Pediatría de Atención Primaria.*, 7(46) 273-285. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/XFRz7>, 2019/11/18.

- Pereda, Noemí. (2011). Revisión sistemática de las consecuencias neurobiológicas del abuso sexual infantil. *Gaceta Sanitaria*, 25(3), 233-239. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.gaceta.2010.12.004>
- Pereda, Noemí. Guilera, Georgina eta Abad, Judith (2014). Victimización infanto-juvenil en España: una revisión sistemática de estudios epidemiológicos. *Papeles de Psicólogo*, 35(1), 66-77. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/La74X>, 2019/12/05.
- Pereda, Noemí. (2016). ¿Uno de cada cinco? Victimización sexual infantil en España. *Papeles del Psicólogo*, 37(2), 126-133. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/YAfuA>, 2019/11/02.
- Pereda, Noemí eta Sicilia, Laura (2017). Reacciones sociales ante la revelación de abuso sexual infantil y malestar psicológico en mujeres víctimas. *Psychosocial Intervention* 26(3), 131–138. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/5i725>, 2019/12/20.
- Pereda, Greco, Hombrado eta Segura (2018). ¿Qué factores inciden para romper el silencio de las víctimas de abuso sexual?. *Revista Española de Investigación Criminológica: REIC*, (16). Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/bbxq2>, 2020/01/02.
- Pinto, Alba R., Cantón, Isabel eta Santos, Yorly A. (2019). Prácticas de riesgo en Redes Sociales y WhatsApp por estudiantes de educación básica secundaria. *Revista Espacios*, 40(23), 7. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/V4uBp>, 2019/12/28.
- Polo, Pilar. (2020). *Indicadores y elementos de riesgo de una dinámica familiar* (publikatu gabeko eskuizkribua). Barcelona: Fundación Vicki Bernadet.
- Pulido, Cristina eta Flecha, Ramón (2009). Actuaciones globales para la prevención de abusos a menores. *Avances en supervisión educativa*, (11), 1-13. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/wcpGe>, 2020/02/17.
- Save the Children (2017). *Ojos que no quieren ver*. Madrid: Save the Children. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/4nkEB>
- Urizar, Maitane (2018). *Haurrekiko abusu sexualen detekzio goiztiarra eta prebentzioa ahalbidetzen duen berrikuntza proiektua* [Gradu Amaierako Lana]. Leioa: UPV/EHU.
- Vaccaro, Sonia. (2019) *Mesa Formativa 1 El mito del SAP como diagnóstico*. Jornada Análisis multidisciplinar del denominado SAP. Mujeres Juezas de España, Madrid.
- Verdugo, Miguel Ángel, Alcedo, M^a Ángeles, B. Bermejo eta Aguado, Antonio L. (2002). El abuso sexual en personas con discapacidad intelectual. *Psicotherma*, 14, Supl. Hemendik berreskuratua: <https://url2.cl/9R6NK>